

PROGRAMAZIOAK ETA

IKAS EGOERAK

PRESTATZEKO AHOLKUAK

AURKIBIDEA

- OPOSIZIOA BERE TESTUINGURUAN: DEIALDIA
- PROGRAMAZIOA SORTZEN:
 - PROGRAMAZIOAREN ATALAK
- IKAS EGOERAK/UNITATEAK SORTZEN
- AHOZKO DEFENTSA
- ZALANTZAK



**DEIALDIA: ALDI
BATERAKO ENPLEGUA
EGONKORTZEKO
LEHIAKETA-OPOSIZIOA**

SOILIK IKAS EGOERA

Oposizioa-fasea (% 60)		Lehiaketa-fasea (% 40)		
A zatia (% 40)	B zatia (% 60)	Lan-esperientzia	Prestakuntza akademikoa	Bestelako merezimenduak
Gaitegia	B.1. Unitate didaktiko bat B.2. Ariketa praktikoa B zatiak 2 zati dituzenez, bi alderdiek % 50eko pisua izango dute.	7	2	1
Gutxienez 5 puntu		Gehienez 10 puntu		

- **Gainerako espezialitateetan.**

Oposizioa-fasea (% 60)		Lehiaketa-fasea (% 40)		
A zatia (% 40)	B zatia (% 60)	Lan-esperientzia	Prestakuntza akademikoa	Bestelako merezimenduak
Gaitegia	B.1. Unitate didaktiko bat	7	2	1
Gutxienez 5 puntu		Gehienez 10 puntu		

<https://steilas.eus/wp-content/uploads/2023/01/Txapela-buruan-EPE-2022-2023-1.pdf>

Oposizio-fasea (% 60)

Probak "Ez baztertzaileak" izango dira

<p>A zatia (% 40)</p>	<p>A zatia: gaitegia Zozketaz ateratako gaien artean, gai bat garatu: a) 25 gai edo gutxiago: 3 gairen artean aukeratu. b) 26-50 gai: 4 gairen artean aukeratu. c) 51 gai edo gehiago: 5 gairen artean aukeratu. Proba hau egiteko 2 ordu emango dira.</p>	
<p>B zatia (% 60)</p>	<p>B.1. Unitate didaktiko bat Unitate didaktiko bat prestatu, aurkeztu eta ahoz defendatu. (Epaimahaiaren aurrean), gehienez ordu bat. • Unitate didaktikoaren azalpena: 45 minutu gehienez. • Epaimahaiaren aurreko eztabaida: 15 minutu gehienez.</p> <hr/> <p>B.2. Ariketa praktikoa (*soilik Lanbide Heziketan) * Aurrez adierazitako Lanbide Heziketako espezialitateen kasuan, B zatiak 2 zati dituzenez, bi alderdiek % 50eko pisua izango dute. (Proba idatziz egiten denean, gehienez 2 ordu emango dira. Idatziz ez denean, epaimahaiak, iragarki-taulan, iraupena adieraziko du).</p>	<p>0-10ra bitartera ebaluatuko da Gutxienez 5 puntu atera behar da bi zatien artean</p>

PROBAREN B ZATIA “UNITATEA, IKAS EGOERA...”

B ZATIA

Hautagaiaren gaitasun pedagogikoa eta irakaskuntzarako beharrezko teknikak menderatzen dituela egiaztatzea izango du helburu.

- Unitate didaktiko-ikaskuntza-egoera bat aurkeztuko da. Lanbide-heziketako espezialitateetan, ariketa praktiko bat ere egin beharko da.
- B.1.– Unitate didaktiko/ikaskuntza egoera bat prestatu, aurkeztu, azaldu eta defendatzeko, honako baldintza hauek bete beharko dira: unitate didaktiko/ikaskuntza-egoera bat prestatu eta epaimahaiaren aurrean ahoz azaltzea lotuta egongo da izangaiak hautatzen duen espezialitatearekin. Izangaiak unitate didaktikoaren/ikaskuntza-egoeraren edukia aukeratuko du.

Unitate didaktikoa lantzean, haren bidez lortu nahi diren ikaskuntza-helburuak, edukiak, ikasgelan planteatuko diren irakaskuntza- eta ikaskuntza-jarduerak eta ebaluazio-prozedurak zehaztu beharko dira. Ikaskuntza-egoerei dagokienez, honako hauek zehaztu beharko dira: **funtsezko kompetentziak, deskribatzaile operatiboak, gaitasun espezifikoak, ebaluazio-irizpideak, oinarrizko jakintzak, jardueren sekuentziazioa eta inplikaturako arloak/ikasgaiak.**

- Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoko **Lanbide Heziketako espezialitateetan, unitate didaktikoa/ikaskuntza-egoera lan-unitateei buruzkoa izan daiteke, eta dagokion lanbide-moduluaren ikaskuntzaren emaitzekin lotu beharko da, bai eta, hala badagokio, kasuan kasuko lanbide-profilaren berezko kompetentzia-atalei lotutako amaierako gaitasunekin ere.** Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoko Hezkuntza Orientazioko eta Gizartearentzako Zerbitzuetako espezialitateetan, izangaiek esku-hartzeko programa bat garatu ahal izango dute ikastetxe batean, hezkuntza- eta psikopedagogia-orientazioko talde batean, eskolako zerbitzu psikopedagogikoetan, eskolako kabinete psikopedagogikoetan edo beste unitate baliokide batzuetan.
- Unitate didaktikoak/ikaskuntza-egoerak:
 - Gutxienez 4 folio eta gehienez 8 folio izango ditu, DIN-A4 formatuan, alde bakarretik idatzita.
 - Proiektuak, lan-unitateak, erronkak eta abar barne har ditzake.
 - Entrega formatu elektronikoen batean egin beharko da:
 - Microsoft Office 2016 edo txikiagoa.
 - Libre Office 6 edo txikiagoa.
 - Fitxategiak Portable Document Format (PDF) formatuan.

- Unitate didaktikoa/ikaskuntza-egoera epaimahaiaren aurrean defendatuko da izangaiari horretarako deialdia egiten zaionean.
- Prestatzeko, hamabost minutu izango ditu izangaiak.
- Prestatzeko eta ahozko azalpenerako (publikoa izango da), erakusketa horretan lagungarri izango zaion material osagarria erabili ahal izango du, berak jarri beharko duena (ordenagailu eramangarria, telefono mugikorra, etab.). Internetera konektatu ahal izango da, baina izangaiak berak jarri beharko ditu probaren zati honetan behar bezala funtzionatzeko behar diren baliabideak.
- Proba honen iraupena ordubetekoa izango da gehienez, eta honela banatuko da: unitate didaktikoaren/ikaskuntza-egoeraren ahozko azalpena 45 minutukoa izango da gehienez. Izangaiaren esku-hartzea amaitu ondoren, epaimahaiak azalpenaren edukiari buruzko galderak edo jarduketak egin ahal izango dizkio, baina eztabaida hori ezin izango da hamabost minututik gorakoa izan.



DEIALDIA: OHIKO LEHIAKETA-OPOSIZIOA

PROGRAMAZIOA + UNITATEA/IKAS-EGOERAK

Oposizioa-fasea (2/3)		Lehiaketa-fasea (1/3)		
1. Proba	2. Proba	Lan- esperientzia	Prestakuntza akademikoa	Bestelako merezimenduak
A zatia: praktikoa 7/10 (gutxienez % 25)	A zatia: programazioa 4/10	5	5	2
B zatia: gaitegia 3/10 (gutxienez % 25)	B zatia: unitatea 6/10			
Gutxienez 5 puntu		Gehienez 10 puntu		

Oposizio-fasea (2/3)

Probak baztertzaileak izango dira

<p>1. Proba</p> <p>Probaren A eta B zatiak saio berean egin ahal izango dira</p>	<p>A zatia: ariketa praktikoa</p> <p>Proba idatziz egiten denean, gehienez 2 ordu emango dira. Idatziz ez denean, epaimahaiak, iragarki-taulan, iraupena adieraziko du.</p> <p>B zatia: gaitegia</p> <p>Zozketaz ateratako gaien artean, gai bat garatu:</p> <ul style="list-style-type: none"> a) 25 gai edo gutxiago: 2 gairen artean aukeratu. b) 26-50 gai: 3 gairen artean aukeratu. c) 51 gai edo gehiago: 4 gairen artean aukeratu. <p>Proba hau egiteko 2 ordu emango dira.</p>	<p>0-10 puntu artean ebaluatuko da</p> <p>Zati bakoitzean puntuazioaren % 25 lortu behar da gutxienez:</p> <p>A zatian (% 70, nota x 0,7)</p> <p>B zatian (% 30, nota x 0,3)</p> <p>Gutxienez 5 puntu atera behar da bi zatien artean</p>
<p>2. Proba</p> <p>Ahozko defentsak, guztira ordu bat eta 15 minutuko iraupena izango du.</p> <p>Ordubetea, honela banatuko da:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Programazioaren ahozko defentsa: 20 minutu gutxienez eta 30 gehienez. • Unitate didaktikoaren azalpena: ordu bat bete arte. <p>Epaimahaiaren aurreko eztabaida: 15 minutu gehienez.</p>	<p>A zatia</p> <p>Programazio didaktikoa aurkeztu eta ahoz defendatu.</p> <p>B zatia</p> <p>Unitate didaktiko bat garatu eta ahoz defendatu.</p> <p>Norberak aurkeztutako programazioan edo espezialitateko gai-zerrenda ofizialean oinarritua.</p> <p>Ausaz ateratako 3 unitate edo gairen artean 1 aukeratuta.</p>	<p>0-10 puntu artean ebaluatuko da</p> <p>A zatian (% 40, nota x 0,4)</p> <p>B zatian (% 60, nota x 0,6)</p> <p>Bi zatien artean gutxienez 5 puntu atera beharko da</p>

Bigarren proba. Izangaiaren gaitasun pedagogikoa, kompetentzia profesionalak eta irakaskuntzan jarduteko behar diren teknikak menderatzen dituela egiaztatzea izango du helburu. Programazio didaktiko bat aurkeztean eta unitate didaktiko/ikaskuntza-egoera bat ahoz prestatu eta azaltzean datza.

A. Programazio didaktiko baten aurkezpena.

Programazio didaktikoak Euskal Autonomia Erkidegoan eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean indarrean dagoen curriculumari egingo dio erreferentzia, parte hartzen den espezialitatearekin lotutako arlo, eremu (Haur Hezkuntzako espezialitaterako), gai edo modulu batean, edo hala eskatzen duten planteamendu metodologikoak erabiltzen badira (proiektuen araberako lanak, ikaskuntza-egoerak, erronkak), hainbat arlo, eremu, ikasgai edo modulutakoak, eta horien artean sartzen da parte hartzen den espezialitatearekin lotuta dagoena.

- Bertan, honako hauek zehaztu beharko dira:
 - Helburuak
 - Edukiak
 - Ebaluazio-irizpideak eta adierazleak
 - Metodologia
 - Baliabide didaktikoak
 - Etengabeko ebaluaziorako prozedurak eta tresnak.
 - Oinarrizko gaitasunak eskuratzeko ekarpena
 - Aniztasunarekiko erantzuna, arreta berezia jarritz hezkuntza-laguntzako behar espezifikoak dituzten ikasleen kasuan, gaitasun handikoak barne, eta genero-ikuspegia kontuan hartuta.
 - Programazio didaktikoa bera ebaluatzeko estrategiak ere jasoko dira.



- Programazio hori bat etorriko da espezialitate horretako irakasleek irakasteko eskumena esleituta duten hezkuntza-maila edo -etapetako ikasturte batekin, eta eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean indarrean dauden curriculumei buruzkoa izan beharko du. **Nolanahi ere, aukeratutako mailarako edo ikasturterako arauak ezartzen dituen gutxieneko curriculum-elementu guztiak jaso behar dira programazioan.**
- Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan sartzeko izangaien kasuan, derrigorrezko bigarren hezkuntzako etapari, batxilergoari edo lanbide-heziketako prestakuntza-zikloei buruzkoa izan daiteke; ezin izango da curriculum-aniztasuneko taldeei buruzkoa izan.

- **Hezkuntza-orientazioko espezialitatean**, izangaiak, programazio didaktikoaren ordean, Tutoretzako Orientazio eta Ekintza Plan bat egin ahal izango dute, Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako institutu baten barruan, edo hezkuntza-orientazioko edo orientabide psikopedagogikoko talde batean esku hartzeko programa bat. Kasu horietan, Plana eta Programa espezialitateko gai-zerrendarekin lotutako esku-hartze plan espezifikoetan antolatu beharko dira. Orientazio eta Tutoretza Ekintzako Plana eta Esku hartzeko Programa eskabideak aurkezteko epea amaitzean indarrean dagoen araudian ezarritako edozein curriculum-edukiri buruzkoak izan daitezke.
- **Maisu-maistren Kidegoko espezialitateetan** sartzeko izangaien kasuan, programazioa ezin izango da **Helduen Hezkuntza Iraunkorrari** buruzkoa izan.
- Maisu-maistren Kidegoko **Haur Hezkuntzako espezialitatean**, eremu bati edo bi eremuei buruzko programazio didaktikoa egin ahal izango du izangaiak.

- Maisu-maistren kidegoko **Pedagogia Terapeutikoaren** espezialitatean, izangaiak hautatutako ikasturte akademiko baterako eta Haur edo Lehen Hezkuntzako ikasturte baterako **jarduera-programa bat garatzeari buruzkoa izango da programazioa**. Kasu zehatz bat garatuko da, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei erreferentzia egingo diena, eta ikasle baten edo haien talde txiki baten premietan oinarritu beharko da, eskola-testuingurua eta dagokien ikasgelako eta ikastetxeko hezkuntza-planteamenduak erreferentziazat hartuta.
- Maisu-maistren Kidegoko **Entzumena eta Hizkuntza espezialitatean**, izangaiak aukeratutako ikasturte akademiko baterako eta **Haur edo Lehen Hezkuntzako ikasturte baterako jarduera-programa bat garatzeari buruzkoa izango da programazioa**. Hezkuntza-premia bereziak dituzten eta/ edo komunikazioan eta hizkuntzan atzerapen larriak dituzten ikasleei zuzendutako kasu zehatz bat garatuko da, ikasle baten edo batzuen premietan oinarritu beharko dena, eskola-testuingurua eta dagokien ikasgelako eta ikastetxeko hezkuntza-planteamenduak erreferentziazat hartuta.

Programazio didaktikoak **40 folio izango ditu gutxienez, eta 60 folio gehienez, DIN-A4 formatuan, alde bakarretik idatzita.**

Gutxienez 9 unitate didaktiko/ikaskuntza-egoera izan beharko ditu, zenbakituta eta aurretik adierazitako alderdi bakoitzean garatuta. Unitate didaktiko/ikaskuntza-egoera horietan proiektuak, lan-unitateak, erronkak eta abar sar daitezke.

Ez da eranskinik sartuko.

Programazio didaktikoaren azala eta aurkibidea, bai eta erreferentzia bibliografikoak ere, ez dira sartuko 40-60 folioen zenbaketan.

Programazio didaktikoa Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebazpen bidez zehazten den epean entregatuko da (ez da 2023ko maiatza baino lehen hasiko) eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da. Entrega formatu elektronikoen batean egin beharko da:

- Microsoft Office 2016 edo txikiagoa.
- Libre Office 6 edo txikiagoa.
- Fitxategiak Portable Document Format (PDF) formatuan.

ERNE!

- Ezarritako epean, entregatzen ez duten pertsonak prozesutik kanpo geratuko dira eta prozesuarekin jarraitzeko eskubidea galduko dute. Programazio didaktikoa epaimahaiaren aurrean defendatuko da izangaiari horretarako deialdia egiten zaionean. Programazio didaktiko hori aurkezteko eta defendatzeko (publikoa da), izangaiek ezin izango dute material osagarriarik erabili, eta haiek emandako programazio didaktikoaren kopia berdin-berdina baino ezin izango dute izan, azpimarraturik, oharririk edo iruzkinirik gabe.

B) Unitate didaktiko/ikaskuntza-egoera bat prestatzea eta ahoz azaltzea.

- Izangai bakoitzak aurkeztutako programazioarekin edo espezialitateko gai-zerrenda ofizialetik abiatuta egindako programazioarekin lotuta egon daiteke unitate didaktiko/ikaskuntza-egoera bat prestatu eta epaimahaiaren aurrean ahoz azaltzea, pertsona bakoitzaren aukeran. Lehenengo kasuan, unitate didaktikoaren/ikaskuntza-egoeraren edukia aukeratuko du, bere programaziotik ausaz ateratako hirutik.
- Bigarren kasuan, espezialitateko gai-zerrenda ofizialetik ausaz ateratako hiru gairen artean aukeratuko du unitate didaktikoaren-ikaskuntza-egoeraren edukia.
- Unitate didaktikoa egitean, honako hauek zehaztu beharko dira, gutxienez:
 - berarekin lortu nahi diren ikaskuntza-helburuak,
 - edukiak,
 - garatu beharreko kompetentziak,
 - ikasgelan proposatuko diren irakaskuntza- eta ikaskuntza-jarduerak,
 - ikasgelaren edo beste ikaskuntza-espazio baten metodologia eta antolamendua,
 - ebaluazio-irizpideak eta adierazleak, eta ikasleen ebaluazio- eta jarraipen-prozedurak eta -tresnak.

- Ikaskuntza-egoerei dagokienez, honako hauek zehaztu beharko dira:
 - Funtsezko kompetentziak,
 - Deskribatzaile operatiboak,
 - Gaitasun espezifikoak,
 - Ebaluazio-irizpideak,
 - Oinarrizko jakintzak,
 - Jardueren sekuentziazioa
 - Inplikaturako arloak/ikasgaiak.

- Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoko Lanbide Heziketako espezialitateetan, unitate didaktikoa/ikaskuntza-egoera lan-unitateei buruzkoa izan daiteke, eta dagokion lanbide-moduluaren ikaskuntzaren emaitzekin lotu beharko da, bai eta, hala badagokio, kasuan kasuko lanbide-profilaren berezko kompetentzia-atalei lotutako amaierako gaitasunekin ere.
- Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoko Hezkuntza Orientazioko eta Gizartearentzako Zerbitzuetako espezialitateetan, izangaiek esku hartzeko programa bat garatu ahal izango dute ikastetxe batean, hezkuntza- eta psikopedagogia-orientazioko talde batean, eskolako zerbitzu psikopedagogikoetan, eskolako kabinete psikopedagogikoetan edo beste unitate baliokide batzuetan.



PROGRAMAZIOAREN ATALAK

PROGRAMAZIO DIDAKTIKOAREN AURKIBIDEA

1. Sarrera
2. Justifikazio legala eta aukeran pedagogikoa
3. Testuingurua
4. Curriculum elementuak
5. Metodologia
6. Ebaluazioa
7. Aniztasunaren trataera
8. Ikas egoerak
9. Bibliografia

1. SARRERA

- Gure diskurtsoa antolatzeko oso garrantzitsua da sarrera on bat egitea. Zer aurkituko dugu gure programazioan? Zein atal? Zein hurrenkeran?

– Aurkezpena: komunikazio-kompetentzia eta kompetentzia didaktikoa:

- Idazketa eta ahozko aurkezpen argia, ordenatua eta arina. Azalpenaren antolamendu egituratua.
- Zuzentasuna eta zehaztasuna hiztegia erabiltzean.
- Sintesi-gaitasuna eta ezarritako denborara egokitzea.
- Alderdi nagusiak eta bigarren mailakoak bereiztea, funtsezko atalak azpimarratzea, ondorioak.

2. JUSTIFIKAZIO LEGALA ETA AUKERAN PEDAGOGIKOA

- Atal honetan galdera nagusi bat erantzungo dugu: zein curriculum, hezkuntza-legeren arabera osatu dugu gure programazioa?

<https://steilas.eus/wp-content/uploads/2023/01/Txapela-buruan-EPE-2022-2023-1.pdf>

Sarrera, lege-justifikazioarekin eta testuinguruan kokatzearekin.

2. JUSTIFIKAZIOA

Justifikazioa bi modutara uler daiteke:

- Programazioaren zentzuari buruzko hausnarketa gisa.
- Programazioan erabiliko diren curriculum eta dokumentuen aipamen gisa.

ZERGATIK ETA ZERTARAKO PROGRAMATU

“Urteko programazio didaktikoa irakaskuntzako jarduera profesionalaren parte da, eta irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesua hobetzearekin lotuta dago. Funtsean, ikasleen beharrak eta ezaugarriak balioesten dituen helburu bat da, garatu nahi diren konpetentziak aztertzen dituen. Ondorioz, ikasleek arrakasta izateko ahalik eta itxaropen handienak garatzeko irakasle talde batean hartzen diren erabakiak zehazten dituen. Aldez aurreko hausnarketa horiek doiak eta errealistak izatearen arabera izango da, neurri batean, programazioaren kalitatea eta emaitza.” (Programazio didaktikoak prestatzeko gida 2023).

Programazioak beraz, ikasleei egokitzera behartzen gaitu. Horretako, ikaslea bera eta bere testuingurua ezagutu behar ditugu. Bide horretan kontuan hartuko ditugu curriculumaren zehaztapen mailak:

1. Curriculuma bera
2. Ikastetxeko dokumentuak: IHP, IUP, ICP
3. Programazioak
4. Egokitzapenak

3. TESTUINGURUA ETA TALDEAREN DESKRIBAPENA

Programazioa zergatik eta zertarako definitu dugunean, honakoa adierazi dugu: “Funtsean, ikasleen beharrak eta ezaugarriak finkatzen ditu, lortu nahi diren helburuak aztertzen ditu, eta, beraz, irakasle-taldeak bere ikasleek ahalik eta arrakastarik handiena lortzeko hartzen dituen erabakiak zehazten ditu”. Beraz, ikaslearen beharrak eta ezaugarriak ezagutu behar ditugu. Hori nola egingo dugu? Bere **testuingurua** definituz eta **taldearen deskribapena** eginez.

- Sarrera, lege-justifikazioarekin eta **testuinguruan kokatzearekin.**

TESTUINGURUA

Testuingurua definitzeko garaian herria eta ikastetxea definituko ditugu.

Zer jaso? Aurrean dugun aztertzaileak gure ikaslearen testuingurua ulertzeko/irudikatzeko moduko informazio esanguratsua.

Herri/eskualde/auzoa azaltzeko:

- Datu demografikoak, datu soziolinguistikoak. Lan merkatua, enpresa sarea eta abar.
- Herriak/eskualde/auzoak elkarlanerako eskaintzen dituen baliabide, erakunde, elkarteak eta abar.

Ikastetxeari dagokionez:

-Ikastetxeko datuak: ikasle kopurua, lerroak, ereduak.

-Ikastetxeko baliabideak: Pertsonalak, materialak.

-Ikastetxearen ezaugarriak: IHP, ICP, Urteko planeko bereizgarriak.

TALDEAREN DESKRIBAPENA

“Programazio didaktikoa irakasle-lanaren zati bat da, eta irakasteko eta ikasteko prozesua hobetzearekin lotuta dago. **Funtsean, ikasleen beharrak eta ezaugarriak finkatzen ditu,** lortu nahi diren helburuak aztertzen ditu, eta, beraz, irakasle-taldeak bere ikasleek ahalik eta arrakastarik handiena lortzeko hartzen dituen erabakiak zehazten ditu. Aurretiko hausnarketa horiek egokiak eta errealistak izatearen baitan egongo da, neurri batean, programazioaren kalitatea eta emaitza.”

Ikasleen beharrak eta ezaugarriak zeintzuk diren azaldu behar dugu atal honetan.

Hau da, zenbat ikasle dituen gure taldeak, zer ezaugarri dituzten gure ikasleek, Hezkuntza-laguntzako premia bereziko ikaslerik badugun eta abar.

Taldea deskribatzerakoan ematen dugun informazioa esanguratsua izan behar da, gure irakaste-ikaste prozesuan eragingo duena eta, ikuspegi inklusiboa aintzat hartuta.

4. CURRICULUM ELEMENTUAK

- Curriculum elementuak:
 - Atal honetan, deialdiak zehazten dituen curriculum elementuak jasoko ditugu.
 - Elementuen azalpen bat jasoko dugu eta, ondoren elementuak berak

Curriculum berriak uletzeko:

https://www.berrigasteiz.com/monografikoak/ec22/etapa_haur_hezkuntza/ec22_haur_hezkuntza_e.html

https://www.berrigasteiz.com/monografikoak/ec22/etapa_oinarrizkoa/ec22_oinarrizkoa_e.html#

https://www.berrigasteiz.com/monografikoak/ec22/etapa_batxilergoa/ec22_batxilergoa_e.html

HAUR HEZKUNTZA, OINARRIZKO HEZKUNTZA ETA BATXILERGOA

Funtsezko kompetentziak

Hizkuntza-
Komunikaziorako
Kompetentzia.
HKK

Kompetentzia
Eleaniztuna.
KE

Matematikarako eta
Zientzia, Teknologia
eta Ingenieritzarako
Kompetentzia.
STEM

Kompetentzia
Digitala. **KD**

Kompetentzia
Pertsonala,
Soziala eta
Ikasten Ikastekoa.
KPSII


Herritartasunerako
Kompetentzia.
HK

Ekintzailtza-
Kompetentzia.
EK

Kontzientzia eta
Adierazpide
Kulturalerako Kon-
petentzia.
KAKK

Iturria: Berritzegune Nagusia

Funtsezko 8 Konpetentziak



IRTEERA PROFILA

Iturria: Berritzegune Nagusia

Funtsezko kompetentzien deskriptoreak

Deskriptore operatiboak

LEHEN HEZKUNTZA OSATZEAN, IKASLEAK...	OINARRIZKO IRAKASKUNTZA OSATZEAN, IKASLEAK...
<p>HKK1. Gertakariak, kontzeptuak, pentsamenduak, iritziak edo sentimenduak ahoz, idatziz eta era multimodalean edo siglen bidez adierazten ditu, argi eta bere ingurune pertsonal, sozial eta hezitzaileko eguneroko testuinguruetara egokituta, eta elkarrekintza komunikatiboetan parte hartzen du, lankidetzaz eta errespetuz, bai informazioa trukatzeko eta ezagutza sortzeko, bai eta lotura pertsonalak eraikitzeko.</p>	<p>HKK1. Euskaraz eta gaztelaniaz ahoz, idatziz eta era multimodalean edo siglez bidez hitz egiten du, koherentziaz, zuzentasunez eta gizarte-testuinguru kritikoa jokoitasunez, eta elkarrekintza komunikatiboetan parte hartzen du, lankidetzaz eta errespetuz, informazioa trukatzeko eta ezagutza sortzeko, bai eta lotura pertsonalak eraikitzeko ere.</p>
<p>HKK2. Pertsona-, gizarte- eta hezkuntza arloetako ahozko, idatzizko eta multimodalezko edo zeinuzko testu errazak ulertzen, interpretatzen eta baloratzen ditu, euskaraz zein gaztelaniaz, unean uneko laguntzarekin, eguneroko testuinguruetan aktiboki parte hartzeko eta ezagutza eraikitzeko.</p>	<p>HKK2. Pertsona-, gizarte-, hezkuntza- eta lanbide-arloetako ahozko, idatzizko eta multimodalezko edo zeinuzko testuak euskaraz zein gaztelaniaz, ulertzen, interpretatzen eta baloratzen ditu jarrera kritikoz, hainbat testuingurutan modu aktiboan eta informatuan parte hartzeko eta ezagutza eraikitzeko.</p>

Funtsezko 8 Konpetentziak



IRTEERA-PROFILA



Eremu-arlo-jakintzagaia



Konpetentzia espezifikoa

Iturria: Berritzegune Nagusia

Osagaiak

Helburuak

Funtsezko 8 Konpetentziak

Deskriptoreak

Irteera-profila

Eremuak/Arloak/
Jakintzagaiak

Konpetentzia
Espezifikoak

Ebaluazio
Irizpideak

Oinarrizko
Jakintzak

Ikas-egoerak



20

Iturria: Berritzegune Nagusia

Konpetentzia espezifikoak

Etapaka **mailakatuta**.

Eremu/arlo/jakintzagai **bakoitzak bereak** ditu.

Lotura-elementu bat dira ikasleen irteera-
profilaren eta, oinarrizko jakintzaren eta
ebaluazio-irizpideen artean.

Zer + Nola + Zertarako galderak erantzunez
idatzita daude.

Konpetentzia espezifikoak eta deskriptoreak

4. Pentsamendu konputazionala erabiltzea datuak antolatuz, zatika deskonposatuz, patrioiak ezagutzuz, orokortuz eta interpretatuz, eta algoritmoak modu gidatuan aldatuz eta sortuz, eguneroko bizitzako egoerak modelizatzeko eta automatizatzeko.

Pentsamendu konputazionala ikasleen etorkizuneko funtsezko trebetasunetako bat da, zuzenean lotzen baita problemen ebazpenarekin eta prozeduren planteamenduekin. Behar den abstrakzioa eskatzen du alderdi garrantzitsuenak identifikatzeko, patrioiak ezagutzeko, zeregin sinpleagoetan deskonposatzeko eta algoritmoak definitzeko, eta, horrela, sistema informatiko batek, gizaki batek edo bien konbinazio batek egikaritu ditzakeen soluzio posibleetara iristeko.

Pentsamendu konputazionala eguneroko bizitzara eramateak informatikaren funtsezko alderdiak ikasleen beharrek lotzea dakar. Horrela, ikasleak etorkizun gero eta teknologikoagorako prestatzen dira, haien pentsamendu kritiko eta sortzaileko gaitasunak hobetuz eta abstrakzioak erabiliz problema konplexuak ebazteko. Era berean, ikasgelan lan egiteko baliabide teknologikoak egoki aukeratzeak ezagutza matematikoa ikasteko eta sakontzeko aukera ematen die ikasleei. Pentsamendu hori berariaz entrenatu eta garatu beharko litzateke, metodologia eta estrategia gidatuen bidez.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, STEM1, STEM2, STEM3, STEM4, STEM6, KD1, KD3, KD5, KPSII5, EK1, EK2, EK3, KAKK4.

Arloa: Matematika - Etapa: Lehen Hezkuntza

Zer

Nola

Zertarako




Iturria: Berritzegune Nagusia

Funtsezko 8 Konpetentziak




IRTEERA-PROFILA



Eremu-arlo-jakintzagaia



Konpetentzia espezifikoa



Ebaluazio-irizpidea

Oinarrizko jakintzak

Iturria: Berritzegune Nagusia

Ez dira programazioaren ardatza

Multzoka antolatuta daude

**Oinarrizko
jakintzak**

**Konpetentziak garatzeko
baliabideak dira** (kontzeptuak,
trebetasunak eta jarrerak)

Iturria: Berritzegune Nagusia

**Konpetentzia espezifiko bakoitza
ebaluatzeko erreferenteak dira**

**Ikas-egoerak diseinatzeko eta
konpetentzia espezifikoak
ebaluatzeko lagungarriak dira.**



**HH/ LH zikloka eta DBHn
zikloka edota mailaka arlo
edo jakintzagaiaren arabera.**

**Zer eta Nola galderak
erantzunez idazten dira**

ZER EGIN CURRICULUM ELEMENTU HORIEKIN


- Programazioaren atal honetan gure etapako , arlo/irakasgai/modulu edo dena delakoaren curriculum elementuak jasoko ditugu. Horretarako, curriculumak ongi irakurri, bertan adierazten baitu zeintzuk diren bertan jasotako curriculum elementuak. (Helburua edo xedeak, funtsezko konpetentziak, deskriptore operatiboak/irteera profila, konpetentzia espezifikoak, ebaluazio irizpideak eta oinarrizko jakintzak)

– Nola jasoko ditugu:

Elementuaren definizioa jaso + gure programazioan landuko ditugun elementuak kopiatu. Komeni da curriculumean agertzen diren letra edo zenbaki berak jasotzea. Gainera, aprobetxatu beharko genuke esateko, hemendik aurrera elementu horiek letra edo zenbaki horiekin izendatuko ditugula.

Adib: **Oinarrizko jakintzak** pertsonak menderatu, artikulatu eta mobilizatu behar dituen arlo, jakintzagai edo eremuen berezko ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak, eta, horiekin batera, konpetentzia espezifikoetan definitutako gaitasunak dira, zeinek ahalbidetuko baitiote problemak ebaztea edo egoera jakin batzuetan erronkei aurre egitea.

LANBIDE HEZIKETAKO CURRICULUM ELEMENTUAK



HEZIKETA ZIKLOAREN
HELBURU OROKORRAK

LANBIDE MODULUAK
Guk aukeratzen dugun
horren curriculum
osagaiak.

Ikaskuntzaren emaitzak eta
ebaluazio-irizpideak

Oinarrizko edukiak

Orientabide metodologikoak:

1. Sekuentziazioa
2. Alderdi metodologikoak
3. Jarduera esanguratsuak eta
ebaluazioaren alderdi kritikoak

PROGRAMAZIOAN JASO BEHARREKOAK

Zikloetako Curriculumak aintzat hartuta, ondorengo eskema osatu daiteke. Nolanahi ere, deialdiak aipaturako elementuei begira osatu.

3. CURRICULUM OSAGIAK

3.1 KONPETENTZIA OROKORRA eta KONPETENTZIA PROFESIONALAK, PERTSONALAK ETA GIZARTEKOAK

3.1.1. KUALIFIKAZIO PROFESIONALAK: OSATUAK ETA OSATU GABEAK

3.1.2. KONPETENTZIA UNITATEAK (UC)

3.1.3. HELBURU OROKORRAK

3.2. MODULUKO IKASKUNTZA EMAITZAK eta EBALUAZIO IRIZPIDEAK

3.3. MODULUKO EDUKIAK

5. METODOLOGIA

- Metodologiaren atal honetan, aurretik azaldutako curriculum elementu horiek nola landuko ditugun azaldu beharko dugu.
- Ezinbestekoa izango da Ikuspegi konpetentziala izatea gure proposamena:
 - Ikasleek ikaskuntzan zeregin aktiboa izatea. Irakasleak bideratzaile edo bitartekari bihurtzea.
 - Ikasleei, jasotako jakintzak edo informazioak erreproduzitu beharrez, hainbat egoeratan SORTZEKO, ERABILTZEKO, APLIKATZEKO eta KOMUNIKATZEKO aukera ematea.
 - Ebaluazioa ikasleen ikaskuntza-prozesuan txertatzea.
 - Eskolako testuinguruak, espazioak, denborak eta ikasleen taldeak antolatzeko prozedurak berrikustea.
 - Ikasleen arteko lankidetzaren lehen mailako estrategia didaktikoa izatea.
 - Eskola ingurune segurua eta goxo bat izatea, non ikasle guztiak libre eta itxaropentsu sentitzen diren.
 - Balioetan hezteak.

- Laburbilduz:

Irakasleek beren proposamen pedagogikoak landuko dituzte etapa honetako ikasle guztientzat, haien aniztasuna kontuan hartuta. Era berean, ikasleen ikasteko erritmo desberdinak kontuan hartuko dituzten, beren kabuz ikasteko gaitasuna bultzatuko duten eta talde-lana sustatuko duten metodoak ezarriko dituzte.

- Beraz:

- Kontzienteki bada, atzetik planteamendu pedagogiko bat dago. Zein? azal dezagun. Ikuspegi sozio-erakitzailea izango da oinarria, ikuspegi inklusiboarekin bat.
- Antolaketa eta planifikazio aldetik, gure sekuentzia edo unitateetan hurrenkera bat ikusi behar da. Irizpide psikopedagogiko, epistemologikoak eta praktikoak azaldu behar dira.
- Saioren beraren antolaketa azaldu behar da. Baliabideak adierazi behar ditugu: bai materialak zein didaktikoak.
- Gainera, kontuan hartu behar dugu irakasgai guztien didaktika ez dela bera. Zer dio Curriculumak modulu/arlo/irakasgai bakoitzari buruz? Arlo bakoitzaren sarrera irakurri arretaz.

- Antolaketa:

- Ikasleak taldekatzea
- Espazioaren antolaketa
- Irakasleak antolatzea: diziplinarteko planteamenduen kasuan.

- Baliabideak

- Ohikoak: digitalak, grafikoak eta ikonikoak, web-baliabideak, ikus-entzunezkoak, errealitate birtuala, adimen artifiziala, bestelakoak..
- IKT planteamendu
- Ez- kanpokoak: erakundeak, museoak, adituak, urruneko laborategiak, ikerketa-zentroak, enpresak, bestelakoak..

Metodologia: Ikuspegi didaktikoa edo didaktikoak zehazten dira. Estrategiak, teknikak, metodoak eta abar zehazten dira. Dagokion ikastarora egokitzen da eta egokia da. IKTen potentzialtasun didaktikoak erabiltzea. Gaitasunen garapena sustatzen du. Diziplinartekotasuna. Ikaskuntza-egoerak, erronkak eta proiektuak proposatzea.

6. EBALUAZIOA

Atal honetan gure ebaluazio planteamendua jaso behar dugu. Planteamendu horrek oinarrizko bost galderari erantzun beharko lioke:

Zertarako ebaluatu?

Noiz ebaluatu?

Nork ebaluatu?

Zer ebaluatu?

Nola ebaluatu?

Galdera horien erantzuna bat etorri behar da curriculumek ebaluazioari buruz diotenarekin. Beraz, komeni da atalaren hasieran dekretuek ebaluazioari buruz dioena labur jasotzea. Eta, ondoren ebaluazio planteamendu bat jaso.

Gure planteamendu hori, ebaluazioaren ondorengo funtzioen arabera azaldu daiteke

- EBALUAZIO HEZITZAILEA:

- Ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan zehar
- Informazio bilketa jarraitu eta sistematikoa
- Ikaskuntza-irakaskuntza gidatzeko eta haur eta ikasleen jarduna hobetzeko erabiliko dela.


- EBALUAZIO HEZIGARRIA:

- Haurrak, ikasleak, berak, bideratua.

- EBALUAZIOAREN ONDORIOAK

- KALIFIKAZIOA

NOLA EGINGO DUGU?



Iturria: Berritzegune Nagusia

ZER HARTU KONTUAN ATALA OSATZERAKOAN

- Ebaluazioaren erreferentea ebaluazio-irizpideak dira.
- Ebaluazio irizpide horiek konpetentzien garapen mailari buruzko informazioa ematen dute eta, ondorioz, irteera profila osatzen duten funtsezko konpetentziena. Horien arteko lotura deskriptore operatiboen bidez egiten da.
- Konpetentzia espezifikoak ebaluazio irizpideen bidez ebaluatzen dira, EZ oinarrizko jakintzen bidez.
- **Beraz**, gure zeregina puntu honetan prozesu konplexu hori nola burutuko dugun azaltzea da.

EBALUAZIO ATALA OSATZEN

- Gure programazioko ikas-egoera edo dena delakoaren atazak, jarduerak edo espazioak definitu ditugunean ikasleek haien betetze prozesuan egiten duten ibilbidea ebaluatu beharko dugu.
- Prozesu hori behar bezala burutzeko, eta beraz, ebaluazio hezitzailea zein hezigarria aurrera eramateko, **EBIDENTZIAK** jaso behar ditugu.
 - Zein tresna erabiliko ditugu informazio hori jasotzeko? Hori definitu behar dugu gure ebaluazio proposamenean. Aurkezpenak, elkarrizketak, idatzizko frogak, galdetegiak....
- Informazio hori bildu dugunean, informazio hori interpretatu beharko dugu. Horretarako ebaluazio **ERREMINTAK** erabiliko ditugu.

EBALUAZIO ATALA OSATZEN

- Ebaluazio erreminta mota asko daude: kontrol-zerrendak, errubrikak, ebaluazio dianak, eta abar.
 - Zein erabiliko ditugun azalduko dugu hemen
- Behin ebaluazio erreminta horiekin ebidentziak aztertu ondoren eta ikasleei haien ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan parte hartzeko aukera eman ondoren (EBALUAZIO HEZIGARRIA) , erabakiak hartzeko unea iritsiko da.
- EBALUAZIOTIK ONDORIOZTATUTAKOAK maila desberdineko erabakiak ekarriko ditu:
 - Programazio didaktikoaren berrikuspena eta doikuntza, hobekuntza (nola egingo dugu?)
 - Errefortzu neurriak: Indartzeko, egokitze, zabaltzeko eta aberasteko neurriak (zeintzuk dira neurri horiek?)
 - Ikasleak bere prozesua auto-erregulatzea. (nola bideratuko dugu prozesu hori?)

EBALUAZIO ATALA OSATZEN

- KALIFIKAZIOA: “Programazio didaktikoak prestatzeko gidan” honela definitzen du kalifikazioa:
 - Kalifikazioa ebaluazio-prozesuaren ondoriozko erabakietako bat da. Prozesu honen adierazpen kodetua da, araudiak ezarritako ebaluazio-eskalaren arabera egiten dena.
 - Kalifikazioa lortzeko JARDUN MAILAK kontuan hartuko ditugu. Ebaluazio irizpideari lorpen adierazle batzuk lotuko zaizkio eta haietatik abiatuz JARDUN MAILA definituko dugu.
 - Hobeto ulertzeko, materialak sortu ahala curriculum gune horretan publikatuz joango dira. Horiei erreparatu.

7. ANIZTASUNARI ERANTZUNA

- Zer dio deialdiak?

“...aniztasunarekiko erantzuna, arreta berezia jarritz hezkuntza-laguntzako behar espezifikoak dituzten ikasleen kasuan, gaitasun handikoak barne, eta genero-ikuspegia kontuan hartuta.”

ZER JASOKO DUGU ATAL HONETAN?

- Zer diote curriculumek aniztasunari buruz? Jaso.
 - Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum zirriborroak 21. artikuluan **Hezkuntza-erantzuna hezkuntza-sistema inklusiboaren esparruan jasotzen du.** Eta, 22. eta 23. artikuluan ere jasotzen du.
- Bestetik, gure ikastetxeko Aniztasunari Erantzuteko Planak jasotzen duena aipatu beharko genuke.
- Azkenik, gure programazioan deskribatu ditugun ikasleei eskainiko diegun erantzuna jasoko dugu.



8. IKAS EGOERAK- UNITATE DIDAKTIKOAK

**OHIKO OPOSIZIOA ETA ALDI
BATERAKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO
PROZESUA**

- ZER JASO BERTAN?

- **Unitate didaktikoa lantzean**, haren bidez lortu nahi diren **ikaskuntza-helburuak, edukiak, ikasgelan planteatuko diren irakaskuntza- eta ikaskuntza-jarduerak eta ebaluazio-prozedurak zehaztu beharko dira. (ALDI BATERAKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO DEIALDIA)**
- Unitate didaktikoa egitean, honako hauek zehaztu beharko dira, gutxienez: **berarekin lortu nahi diren ikaskuntza-helburuak, edukiak, garatu beharreko kompetentziak, ikasgelan proposatuko diren irakaskuntza- eta ikaskuntza-jarduerak, ikasgelaren edo beste ikaskuntza-espazio baten metodologia eta antolamendua, ebaluazio-irizpideak eta adierazleak, eta ikasleen ebaluazio- eta jarraipen-prozedurak eta –tresnak. (OHIKO OPOSAKETAREN KASUAN).**
- **Ikaskuntza-egoerei dagokienez**, honako hauek zehaztu beharko dira: **funtsezko kompetentziak, deskribatzaile operatiboak, gaitasun espezifikoak, ebaluazio-irizpideak, oinarrizko jakintzak, jardueren sekuentziazioa eta inplikaturako arloak/ikasgaiak. (ALDI BATERAKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO DEIALDIA)**
- **Ikaskuntza-egoerei dagokienez**, honako hauek zehaztu beharko dira: **funtsezko kompetentziak, deskribatzaile operatiboak, gaitasun espezifikoak, ebaluazio-irizpideak, oinarrizko jakintzak, jardueren sekuentziazioa eta inplikaturako arloak/ikasgaiak. (OHIKO OPOSAKETAREN KASUAN).**

PROGRAMAZIOA + UNITATE/ IKAS EGOERAREN KASUAN

- Deialdiak dio 9 unitate didaktiko/ ikas egoera jaso behar dituela gure programazioak.
- Kontuan hartu, programazioan ezin izango ditugula garatu bere osotasunean. Ikas egoeren edo unitate didaktikoen hezurdura jasoko dugu.
- Hezurdura hori ongi diseinatzeak ahozko defentsan lagunduko digu.

PROGRAMAZIOA + UNITATE/ IKAS EGOERAREN KASUAN

- Gutxienez 4 folio eta gehienez 8 folio izango ditu, DIN-A4 formatuan, alde bakarretik idatzita.
- Proiektuak, lan-unitateak, erronkak eta abar barne har ditzake.

TXANTILOIA

Unitatearen txantiloia eredu: https://ivac-eei.eus//upload/cf/documentos/13/adg_t_ges_adm_ud_0442_e.pdf

Ikas egoeren txantiloia eredu: <https://curriculumma.euskadi.eus/eu/gidak>

Kontuan hartu txantiloia zuen beharretara (deialdiak eskatzen duena kontuan hartuta, noski) egokitu daitezkeela.

UNITATE/ IKAS EGOEREN DISEINUA

- Gure sekuentzien atzean dagoen planteamendu pedagogikoa azaldu ostean, gure programazioko unitateen/ ikas egoeren diseinuari ekingo diogu.
- Lan horretan lehen urratsa sekuentziak edo unitateak ikasturtean zehar banatzea izango da.
- Horretarako ikasturteko egutegia hartu eta 9 zatitan banatuko dugu.
- Kontuan hartu lan horretan irakasgaiak zenbat ordu dituen aintzat hartu beharko dugula. Ez baita gauza bera Matematikak edo Filosofiak, edo gure moduluek duten ordu kopurua astean zehar.
- Sekuentziek/ikas-egoerek ez dute zertan saio kopurua izan behar, baina komeni da banaketa homogeen bat izatea eta, are gehiago, planteamendu homogeen bat. Izan ere, planteamendu homogeen batek aukera emango digu sekuentziak errazago defendatzeko.
- Egutegian banatu ondoren, sekuentziak hurrenkeran definitzen hasiko gara. Horretarako, komeni da sekuentziek barne eta kanpo koherentzia eta kohesioa izatea.

DENBORALIZAZIO ADIBIDE BAT

- Lanbide Heziketako modulu baten adibidea

GIZARTE ETA KULTURA
ZERBITZUAK

Heziketa-zikloa: HAUR-HEZKUNTZA
1. modulua: HAUR HEZKUNTZAREN DIDAKTIKA

Unitate didaktikoen sekuentziak eta denboralizioa

EDUKI MULTZOAK						UNITATE DIDAKTIKO SEKUENTZIATUAK	IRAUPENA
B1	B2	B3	B4	B5	B6		
						UD 0: Moduluaren aurkezpena.	1 h.
x						UD 1: Haur-hezitzailearen lanbide-irudia aztertzea.	14 h.
x						UD 2: Haurren interesen alde eta hurrekin lotutako legeriarekin lotuta lan egiten duten erakundeak aztertzea.	22 h.
x		x				UD 3: Haur-hezkuntza garatzen den testuinguruaren azterketa aktiboa.	20 h.
	x					UD 4: Curriculumaren kontzeptua eta berau lantzeko oinarriak aztertzea.	32 h.
				x		UD 5: Programazioa diseinatzea eta ezartzea.	32 h.
		x	x			UD 6: Hezkuntza-baliabideak eta aukera metodologikoak hautatu eta erabiltzea.	30 h.
	x					UD 7: Ikastetxe batean antolamendu-dokumentuak diseinatzea: Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua eta Ikastetxearen Curriculum Proiektua.	25 h.
					x	UD 8: Haur hezkuntzan ebaluazio tresnak landu eta erabiltzea.	24 h.
GUZTIRA							200 ordu

1. multzoa: Hezkuntzako esku-hartzearen testuinguruaz aztertzea.
 2. multzoa: Hezkuntzako esku-hartzea diseinatzea.
 3. multzoa: Estrategia metodologikoak zehaztea.
 4. multzoa: Hezkuntzako esku-hartzearen espazioak, denborak eta baliabideak planifikatzea.
 5. multzoa: Hezkuntza formaleko eta ez-formaleko jardueren abiaraztea antolatzea.
 6. multzoa: Esku-hartze prozesuaren ebaluazioa diseinatzea.

IKAS EGOERAK EGITEAN KONTUAN HARTU BEHARREKOA

- Oinarrizko Hezkuntzako ikas-egoerei buruzko eranskinean, curriculum elementu berri horren gakoak ematen dira.
- Agindutako curriculumaren egitura osatzen duten elementu guztiak lerrokatzearen emaitza da.
- **Ikas-egoerak** ikasleek funtsezko konpetentziekin eta konpetentzia espezifikoekin lotzen diren jarduerak garatzea eskatzen duten agertokiak eta jarduerak dira, konpetentzia horiek eskuratzen eta garatzen laguntzen dutenak. Ikas egoeretatik abiatuta egindako lanak edozein maila, arlo, jakintzagai edo eremutako mailaren programazioa artikulatzea ahalbidetzen du, konpetentzien araberako ikaskuntzaren ikuspegia sostengatzen duten jakintzak eta gaitasunak elkartzen dituzten zenbait testuingurutan oinarrituta.
- **Ikaskuntzarako Diseinu Unibertsala (IDU)** curriculumak garatzeko printzipioen multzoa da, ikasle guztiei hezkuntzarako sarbidean aukera -berdintasuna ematen diena. Helburua benetako inklusioa eta parte-hartzea lortzea da, ikaskuntzarako oztopoak minimizatuz.
 - Nola jakin horiek betetzen ari naizen nire ikas-egoeratan? <https://curriculum.euskadi.eus/eu/gidak> . Kontrol galdera horiek oso aproposak dira gure ikas-egoerak osatzeko garaian.
- **Azkenik, gogoratu:**
 - **Atzetan, jardueretan eta ariketetan oinarritutako egitura izan behar dute ikas egoerak.**

IV. IKAS-EGOERAK DISEINATZEKO TXANTILOIA

DATU OROKORRAK

Izenburua

Lizentzia

Inplikaturiko arloak, jakintzagaiak edo eremuak

Maila

Saio kopurua

Ikas-egoeraren markoa

Testuingurua :

Abiapuntua:

Azken ekoizpena edo produktua

Proposamenaren xedea

ARGUDIAKETA CURRICULARRA

Funtsezko kompetentziak	Deskriptoreak	Kompetentzia espezifikoak	Ebaluazio-irizpideak	Oinarrizko jakintzak
Arloa, jakintzagaia edo eremua				
Arloa, jakintzagaia edo eremua				
Arloa, jakintzagaia edo eremua				


JARDUEREN SEKUENTZIA LABURRA

HASIERAKO FASEA

Ataza/Jarduera	Lorpen-adierazleak	Ebaluatzeko tresnak (ebidentziak)	Ebaluatzeko erremintak
1.			
2.			
Ataza/Jarduera	Lorpen-adierazleak	Ebaluatzeko tresnak (ebidentziak)	Ebaluatzeko erremintak
1.			
2.			
3.			
Ataza/Jarduera	Lorpen-adierazleak	Ebaluatzeko tresnak (ebidentziak)	Ebaluatzeko erremintak
1.			
2.			

9. BIBLIOGRAFIA

- Gure programazioan aipatutako egileak, curriculumak edo dena delakoak behar bezala aipatu behar ditugu. Nola egin? Hona hemen zenbait material hori egiteko:
 - https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_ebe&view=bilaketa&Itemid=1161&task=bilaketa&lang=eu&id=326
 - <https://www.mondragon.edu/eu/web/biblioteka/apa-estiloa>



**AHOZKO
AURKEZPENERAKO
AHOLKUAK**

DEIALDIAK DIO:

ALDI BATERAKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO DEIALDIAN:

- Unitate didaktikoa/ikaskuntza-egoera epaimahaiaren aurrean defendatuko da izangaiari horretarako deialdia egiten zaionean. Prestatzeko, hamabost minutu izango ditu izangaiak. Prestatzeko eta ahozko azalpenarako (publikoa izango da), erakusketa horretan lagungarri izango zaion material osagarria erabili ahal izango du, berak jarri beharko duena (ordenagailu eramangarria, telefono mugikorra, etab.). Internetera konektatu ahal izango da, baina izangaiak berak jarri beharko ditu probaren zati honetan behar bezala funtzionatzeko behar diren baliabideak. Proba honen iraupena ordubetekoa izango da gehienez, eta honela banatuko da: unitate didaktikoaren/ikaskuntza-egoeraren ahozko azalpena 45 minutukoa izango da gehienez. Izangaiaren esku-hartzea amaitu ondoren, epaimahaiak azalpenaren edukiari buruzko galderak edo jarduketak egin ahal izango dizkio, baina eztabaida hori ezin izango da hamabost minututik gorakoa izan.

DEIALDIAK DIO

OHIKO OPOSAKETAREN KASUAN:

Bigarren proba hau egiteari dagokionez, ordubete eta hamabost minutuko iraupena izango du gehienez, eta honela banatuko da:

- Programazio didaktikoa aurkeztea eta ahoz defendatzea, eta unitate didaktikoa/ikaskuntza-egoera ahoz azaltzea: ordubete. Hasieran, aurrez emandako programazio didaktikoa aurkeztu eta ahoz defendatuko da epaimahaiaren aurrean. Horretarako, izangaiek gutxienez hogeita minutu eta gehienez hogeita hamar minutu izango dituzte. Programazio didaktiko hori aurkezteko eta defendatzeko (publikoa da), izangaiek ezin izango dute material osagarrikerik erabili, eta haiek emandako programazio didaktikoaren kopia berdin-berdina baino ezin izango dute izan, azpimarraturik, oharrik edo iruzkinik gabe.
- Ondoren, epaimahai beraren aurrean eta esku hartzeko gehieneko aldia (ordubete) osatu arte, unitate didaktikoaren/ikaskuntza-egoeraren ahozko azalpena egingo da. Ahozko azalpena (publikoa izango da) prestatzeko eta azaltzeko, erakusketa horretan lagungarri izango zaion material osagarria erabili ahal izango du, berak jarri beharko duena (ordenagailu eramangarria, telefono mugikorra, etab.). Interneterako konexioa baimenduko da, baina izangaiek berak jarri beharko ditu probaren zati hau garatu bitartean behar bezala funtzionatzeko behar diren baliabideak. Era berean, gidoi bat erabili ahal izango du, gehienez ere folio batekoa, bi aldeetatik, eta hura amaitzean epaimahaiari entregatuko dio.
- Izangaiaren esku-hartzea amaitu ondoren, epaimahaiak galderak edo jarduketak egin ahal izango dizkio azalpenaren edukiari edo ariketa praktikoari buruz. Eztabaida hori ezin izango da hamabost minututik gorakoa izan.

AHOZKO DEFENTSA

Horrek funtsean esan nahi du, bi aurkezpenen arteko koherentzia funtsezkoa dela. Hau da, programazioan ezarri ditugun taldearen ezaugarriak, ikastetxearenak, aipatun dugun metodologia eta hezkuntza oinarriak eta ebaluazioaren funtzio hezitzailea gure unitateetan jasota agertu behar dira.

Beraz, guk esan badugu gure herriko "kultura ondarea" oso oparoa dela, gure sekuentzietan agertu beharko da.

Gainera, hori arrazoi psikopedagogeekin jantziko du, gertukoa lantzeak eta baloratzetik, urrutikoa baloratzera joango baikara. Edota, ondarearen testuinguru historikoa lantzerakoan, gure inguruko historiatic abiatu eta urrutikora eramango gaituelako.

Izan ere, deialdiak adierazten duen moduan, oposizioaren funtsa gure gaitasun pedagogikoa azaltzean datza.

AHOZKO DEFENTSA

Ikuspegi praktikotik, oso garrantzisa da sekuentziak ongi diseinatzea eta guztiek barne-logika bat izatea eta metodologia bera erabiltzea.

Gainera, ziurtatu beharko dugu, unitate guztiek balioko digutela konpetentziak lantzeko eta eduki mota desberdinak (kontzeptualak, prozedurazkoak, jarrerazkoak) jorratuz lortuko dugula hori.

Ariketa hori ongi osatzen badugu eta gure sekuentzia urte osoko logika batean kokatzen bada; sinpleenetik konplexura badoa; gertukotik urrunekora; zehatzetik abstraktura eta abar, gure aurkezpenak zentzua hartuko du.

Izan ere, sekuentzia azaltzerakoan, jarduerak azaltzean baino, jarduera horien zergaitia azaltzen saiatuko gara.

Hau da, zenbait edukiren eskema egiterakoan, prozedura jakin batzuk praktikan jartzeaz gain, eduki kontzeptualak finkatzeko prozesuan egongo naiz.

Edota, eskutitz formaleko zenbait formula errepikatuz kontzeptuzko edukiak landuko ditut.

Gainera, bukaeran ekoizpen bat badago, konpetentziak mobilizatzen egongo gara, bai aplikazioaren ikuspegitik, bai eta proiektu horren aurkezpenaren alderdi komunikatiboa lantzen.

BAINA NOLA?

Programazioa azaltzeko gidoi bat osatu. Programaren funtsa zein den kontuan harturik, ikasleek ahalik eta arrakasta handiena lortzea, hori lortzeko planteamendua azalduko dugu. Funtsean, gure aurkezpenean NORI, ZER eta NOLA galderari erantzun behar diogu.

Ez dugu dena irakurri behar, galdera horiek erantzuten saiatu behar gara, gure programazioaren indarguneetan zentratuz.

Oso garrantzitsua eta lagungarria da eskema osatutakoan, defentsaren entseguak egitea. Denboraren kudeaketa funtsezkoa da ariketa horretan. 20-30 minutuz hizketan aritzea luze iruditu dakiguke, baina ez da horrendeste.

Programazioan EZIN DA material osagarrikerik erabili (soilik gure programazioaren kopia) beraz aurkezpenaren hurrenkera buruan gorde.

BAINA NOLA?

Unitate didaktikoa prestatu eta azaltzeko, izangaiak nahi duen laguntza-materiala erabili ahal izango du, berak ekarria, Era berean, bi aldeetatik folio bat gaindituko ez duen gidoi bat erabili ahal izango du, eta hura amaitzean Auzitegiari emango dio.


Baliabide digitalak erabiltzekotan, eskura izango dugun bakarra Interneteko konexioa da. Beste guztia guk eraman beharko dugu. Merezi du?

Zer jaso orri horretan? Unitate edo sekuentzia bakoitzak ikaskuntza helburuak ditu eta horiek dira garrantzitsuenak. Izan ere, horiek definitzen dute zer espero dugun gure ikasleengandik.

Beraz, aurkezpenari begira, zuen unitatea azaltzen joan, lortu nahi diren ikaskuntza helburuak ardatz hartuz. Izan ere, horiek markatuko digute gure unitatearen hurrenkera.

Ez ahaztu hurrenkera didaktikoa azaltzea, hau da, zergatik hasieren aurrezagutzak, gero garapena...

Jardueren azalpenean baino, haien aukeraketaren zergatian zentratuko gara.



**OPOSIZIO-FASEKO
PROBAK
BALORATZEKO
IRIZPIDEAK**

PROBA GUZTIAK EGITEKO ARAU OROKORRAK

– Aurkezpena: komunikazio-konpetentzia eta konpetentzia didaktikoa:

- Idazketa eta ahozko aurkezpen argia, ordenatua eta arina.
- Azalpenaren antolamendu egituratua.
- Zuzentasuna eta zehaztasuna hiztegia erabiltzean.
- Sintesi-gaitasuna eta ezarritako denborara egokitzea.
- Alderdi nagusiak eta bigarren mailakoak bereiztea, funtsezko atalak azpimarratzea, ondorioak.

– Deialdiko betekizunetara egokitzea:

- Espezialitateko irakasleek irakasteko eskumena duten hezkuntza-maila edo -etapetako ikasturte bati dagokio.
- Eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean indarrean dauden curriculumak.
- Hautatutako ikastaroko curriculum-elementu guztien programazioa.
- Deialdian ezarritako formazko eta edukizko baldintzak betetzea.
- Deialdian adierazitako hedapen- eta aurkezpen-baldintzak errespetatzea.

– Aurkezpena: komunikazio-kompetentzia eta kompetentzia didaktikoa:

- Idazketa eta ahozko aurkezpen argia, ordenatua eta arina. Azalpenaren antolamendu egituratua.
- Zuzentasuna eta zehaztasuna hiztegia erabiltzean.
- Sintesi-gaitasuna eta ezarritako denborara egokitzea.
- Alderdi nagusiak eta bigarren mailakoak bereiztea, funtsezko atalak azpimarratzea, ondorioak.

– EGITURA ETA EDUKIA:

- Sarrera, lege-justifikazioarekin eta testuinguruan kokatzearekin.
- Araudian agertzen diren programazio didaktikoaren elementu guztiak garatzea. Programazioaren elementuen arteko koherentzia.
- Teknikoki ondo formulatutako ikaskuntza-helburuak, koherenteak, eskaerak aurkezteko epearen amaieran indarrean dagoen curriculum ofizialaren helburu orokorrak zehazten dituztenak eta dagokion mailara, ikasleen ezaugarrietara eta garapen-mailara egokituta daudenak, baita planteatzen den irakaskuntza-testuinguru zehatzera ere, irteera-profila eta/edo profil profesionala eta curriculum-esparruan ezarritako kompetentzia-mailak kontuan hartuta.

- Oinarrizko jakintzen hautaketa eta edukien sekuentziazioa proposatutako helburuetara eta irakaskuntza-testuinguru zehatzera egokitu behar dira, eta irizpide epistemologiko eta funtzionalei erantzun behar diete, espezialitatearen curriculum-proiektuak dagokion mailarako ezartzen dituen funtsezko konpetentziak eta konpetentzia espezifikoak eskuratzea ahalbidetzeko.
- Metodologia: Ikuspegi didaktikoa edo didaktikoak zehazten dira. Estrategiak, teknikak, metodoak eta abar zehazten dira. Dagokion ikastarora egokitzen da eta egokia da. IKTen potentzialtasun didaktikoak erabiltzea. Gaitasunen garapena sustatzen du. Diziplinartekotasuna. Ikaskuntza-egoerak, erronkak eta proiektuak proposatzea.

- Planteatutako helburuekin eta ezarritako metodologiarekin bat datozen irakaskuntza- eta ikaskuntza-jarduerak proposatzea. Handitzeko eta indartzeko jarduerak. Estrategia kognitibo desberdinak eskatzen dituzten jardueren aniztasuna. Ikasteko estiloen aniztasunera eta ikasleen behar eta ezaugarri desberdinetara bideratutako jarduerak. Taldeko eta sareko lan autonomo eta kooperatiboaren alde egitea. Digitalizazioa.
- Ebaluazio-irizpideak, adierazleak, deskribatzaileak eta ikasleen hezkuntza-mailara, kompetentzia-mailara eta ezaugarrietara egokitutako kalifikazio-irizpideak: egokitzapen legala eta didaktikoa. Ikasleen aniztasunari erantzuten diote. Gaitasunak etengabe ebaluatzeko eta ikasleen jarraipena egiteko prozesuak eta tresnak, ebaluazioaren prestakuntza-funtzioarekin bat datozenak. Indartzeko eta sakontzeko mekanismoak aurreikusten dituzte.
- Etapako kompetentziak eskuratzen laguntzea, bai funtsezkoak, bai espezifikoak.
- Denboralizazioa.

– Aniztasunarekiko arreta eta hezkidetza:

- Ikasleen aniztasunari erantzuteko proposamenak zehaztea eta egokitzea, inklusibitatearen printzipioaren arabera. Banakako planak. Hezkuntza-laguntzako behar espezifikoak dituzten ikasleei arreta emateko estrategiak, hezkuntza premia bereziak eta gaitasun handiak dituzten ikasleak barne. Indartzeko eta sakontzeko planak, curriculum egokitzapenak...
- Hezkidetzako helburuak eta teknikak integratzea.

– Proposamenen originaltasuna.

– Ahozko eta idatzizko komunikazio-gaitasuna. Komunikazio-egoerara egokitutako hizkuntza-erregistroa. Zuzentasun gramatikala, sintaktikoa, ortografikoa eta diskurtsiboa.

Unitate didaktikoa baloratzean, honako hauek hartuko dira kontuan:

– Deialdiko betekizunetara egokitzea:

- Izangai bakoitzak aurkeztutako programazioarekin lotua edo espezialitateko gai-zerrenda ofizialetik abiatuta prestatua, pertsona bakoitzaren aukeran.
- Deialdian ezarritako formazko eta edukizko baldintzak betetzea.
- – Aurkezpena: komunikazio-konpetentzia eta konpetentzia didaktikoa
- Azalpen argia, ordenatua eta arina. Azalpenaren antolamendu egituratua. Erregistroa komunikazio-egoerara eta diskurtsoaren helburura egokitzea.
- Zuzentasuna eta zehaztasuna hiztegia erabiltzean. Hizkuntza-erregistroa. Zuzentasun gramatikala, sintaktikoa, semantikoa eta diskurtsiboa.
- Sintesi-gaitasuna eta ezarritako denborara egokitzea.
- Alderdi nagusiak eta bigarren mailakoak bereiztea, funtsezko atalak azpimarratzea, ondorioak.

– Unitate didaktikoaren ezaugarriak, egitura eta edukia

- Unitate didaktikoak/ikasteko egoerak koherentea izan behar du aurkeztutako programazioarekin, eskaerak aurkezteko epearen amaieran indarrean zegoen curriculum ofizialean ezarritakoarekin, ikastetxeko proiektuekin eta gaitasunen garapenean oinarritutako hezkuntzaren ikuspegiarekin.
- Unitate didaktikoa/ikasteko egoera ikasleen errealitatearen eta ezaugarrien arabera egokitzen du. Irakaskuntzen eta ikasleen ezaugarri espezifikoak erreparatzen die. Etapa, maila, ikastetxe eta talde zehatzetara egokitzea.
- Araudian agertzen diren elementu guztiak garatzea. Unitate didaktiko/ikasteko egoeraren elementuen arteko koherentzia.
- Ebaluazio-helburuek/-irizpideek unitate didaktiko/ikasteko egoerara garatzeko ezarritako denboran lortu beharreko ikaskuntzak adierazten dituzte, honako hauei dagokienez: konpetentzia giltzarriak eta espezifikoak, lorpen-mailak, deskribatzaile operatiboak eta konpetentzia profesionaleko unitateak, dagokionaren arabera.

- Dagokion ikasturtera, ikasleen ezaugarrietara, garapen-mailara eta irakaskuntza-testuinguru zehatzera egokitutako ikaskuntza-helburuak. Teknikoki ondo formulatuta. Koherenteak izatea programazioan jasotakoekin eta unitate didaktiko/ikasteko egoerako gainerako elementuekin. Eskaerak aurkezteko epearen amaieran indarrean zegoen Curriculum ofizialaren helburuak zehazten dituzte, eta etapako konpetentziak eskuratzeari esleitzen zaizkio. Lorpena ebaluazio-irizpideen, adierazleen eta formulatutako deskribatzaileen bidez egiazta daiteke.
- Proposatutako helburuekin, metodologiarekin, proposatutako irakaskuntza-ikaskuntza jardurekin, ebaluazio prozedura eta -irizpideekin, adierazleekin eta deskribatzaileekin bat datozen jakintzak eta edukiak hautatzea. Irizpide epistemologiko eta funtzionalei erantzuten diete. Testuinguru zehatzera egokituak.

- Ikasgelaren edo beste ikaskuntza-espazio baten metodologia eta antolaketa: ikuspegi didaktikoa edo didaktikoak zehazten dira. Estrategiak, teknikak, metodoak eta abar zehazten dira. Dagokion ikastarora egokitzen da eta egokia da. Gaitasun giltzarriak eta espezifikoak eskuratzeko egiten den ekarpena zehazten da. Hezkuntza-laguntzako behar espezifikoak dituzten ikasleei arreta emateko estrategiak zehazten dira. IKTen ahalmen didaktikoak eta digitalizazioa erabiltzea irakaskuntza-ikaskuntza prozesuetan. Diziplinartekotasuna.
- Unitate didaktikoa/ikasteko egoera garatzeko baliabide didaktiko egokiak.
- Irakaskuntza- eta ikaskuntza-jardueren proposamen errealista eta koherentea, egoera errealera, curriculum ofizialera eta indarrean dauden printzipio metodologikoetara egokituak. Ikaskuntza-egoerak, erronkak, proiektuak, eremuen araberako lana... sartzea. Ikaskuntzak eskuratzea, orokortzea eta transferitzea errazten duen sekuentzia baten arabera antolatutako eta egituratutako jarduerak. Planteatutako helburuekin eta proposatutako metodologiarekin bat datozen jarduerak, gaitasunen garapena sustatzen dutenak, berdinen arteko interakzioa, jarduera autonomoa, lan kooperatiboa eta ikasten ikasteko gaitasuna bultzatzen dutenak, aniztasunarekiko arreta kontuan hartzen dutenak, tenporalizazio egokia erakusten dutenak eta baliabide desberdinen erabilera aurreikusten dutenak. Askotarikoak eta motibatzaileak, ondo sekuentziatuak eta ikasgai bakoitzean erabili ohi den material didaktikoaren erabilera kontuan hartzen dutenak. Autonomia eta autoerregulazioa sustatzea.

- Ikasleak ebaluatzeko eta kalifikatzeko jarduerak, baita errekuaratzeko, indartzeko, sakontzeko eta zabaltzeko jarduerak ere. Autoebaluazio-jarduerak. Ebaluazioa binaka.
- Ebaluazio-irizpideak, lorpen-mailaren adierazleak, deskriptore operatiboak eta mailari egokitutako kalifikazio irizpideak, -prozedurak eta -tresnak: lege-egokitzapena eta egokitzapen didaktikoa. Ikasleen aniztasunarekin bat datozenak. Honako hauek hartzen dituzte barnean: exo-ebaluazioa, autoebaluazioa eta koebaluazioa.
- Etengabeko ebaluaziorako eta ikasleen jarraipenerako prozesuak eta tresnak, ebaluazioaren prestakuntza funtzioarekin bat datozenak. Berreskuratzeko, sakontzeko, autorregulatzeko eta ikasteko autonomia sustatzeko mekanismoak hartzen dituzte kontuan.

- Ikasleen ikaskuntza, irakaskuntza-praktika bera eta irakatsi eta ikasteko prozesuen eta jardueren eraginkortasuna (programazio didaktikoa bera barne) ebaluatzeko prozeduren, irizpideen eta adierazleen errealismoa, zehaztasuna eta egokitzapen praktikoa.
 - Familiek eta eskola-komunitateko beste kide batzuek ikaskuntza-prozesuan parte har dezaten sustatzeko proposamenak.
- Aniztasunarekiko arreta eta hezkidetzak:
- Ikasleen aniztasunari erantzuteko proposamenak zehaztea eta egokitzea, inklusibitatearen printzipioaren arabera. Hezkuntza-laguntzako behar espezifikoak dituzten ikasleei arreta emateko estrategiak zehazten dira, hezkuntza premia bereziak, euskal hezkuntza-sisteman berandu sartzekoak eta gaitasun handiak dituztenak barne. Indartzeko eta sakontzeko planak.
 - Hezkidetzako helburuak eta teknikak integratzea eta genero-berdintasuna sustatzea.

EZTABAIDA EPAIMAHAIAREKIN

- Zehaztasuna, zuzentasuna, zorrotasun zientifikoa, arrazoibidea eta justifikazio akademikoa epaimahaiak egindako galderari/galderei emandako erantzunetan.
- Ahozko aurkezpenean, aurkeztutako programazio didaktikoan edo ariketa praktikoan azaldutakoak osatzen edo zabaltzen dituzten argudioak ematen dira.
- Gaitasun pedagogikoa. Irakaskuntzan jarduteko beharrezkoak diren teknikak menderatzea. Arreta berezia jarriko da esparru metodologikoan eta ikasgelako dinamikan.
- Segurtasuna eta heldutasun pedagogikoa adierazten ditu egiten dituen proposamenetan.
- Gogoeta autonomoa, nor bere burua egitea eta norberaren ekarpenak erakusten ditu.
- Ezbeharren aurreko erresilientzia, aldaketara egokitzeko gaitasuna (testuinguru, egoera eta eskakizun berriak), ekimena, erabakiak hartzea, enpatia (ikasleekin, familiekin, ikastetxeko langileekin, beste eragile batzuekin...), hezkuntza-funtzioaren kontzientzia soziala
- Komunikatzeko gaitasuna: jariotasuna, koherentzia, ordena, zuzentasuna, zehaztasuna, egoerara egokitutako hizkuntza-erregistroa, elomitatea...

UNITATE DIDAKTIKOA/IKASKUNTZA-EGOERA: AHOZKO AZALPENA (Egonkortzeko lehiaketa-oposizioa) Unitate didaktikoa baloratzean, honako hauek hartuko dira kontuan: – Deialdiko betekizunetara egokitzea:

- Deialdian ezarritako formazko eta edukizko baldintzak betetzea.
– Aurkezpena: komunikazio-konpetentzia eta konpetentzia didaktikoa
- Azalpen argia, ordenatua eta arina. Azalpenaren antolamendu egituratua. Erregistroa komunikazio-egoerara eta diskurtsoaren helburura egokitzea.
- Zuzentasuna eta zehaztasuna hiztegia erabiltzean. Hizkuntza-erregistroa. Zuzentasun gramatikala, sintaktikoa, semantikoa eta diskurtsiboa.
- Sintesi-gaitasuna eta ezarritako denborara egokitzea.
- Alderdi nagusiak eta bigarren mailakoak bereiztea, funtsezko atalak azpimarratzea, ondorioak.

– Unitate didaktikoaren ezaugarriak, egitura eta edukia

- Unitate didaktikoak/ikasteko egoerak koherentea izan behar du curriculum ofizialean, ikastetxeko proiektuetan eta gaitasunen garapenean oinarritutako hezkuntzaren ikuspegian ezarritakoarekin.
- Unitate didaktikoak/ikasteko egoerak ikasleen errealitatearen eta ezaugarrien arabera egokitzen du. Irakaskuntzen eta ikasleen ezaugarri espezifikoari erreparatzen die. Etapa, maila, ikastetxe eta talde zehatzetara egokitzea.
- Araudian agertzen diren elementu guztiak garatzea. Unitate didaktiko/ikasteko egoeraren elementuen arteko koherentzia.
- Ebaluazio-helburuek/-irizpideek unitate didaktikoa/ikasteko egoera garatzeko ezarritako denboran lortu beharreko ikaskuntzak adierazten dituzte, honako hauei dagokienez: konpetentzia giltzarriak eta espezifikoak, lorpen-mailak, deskribatzaile operatiboak eta konpetentzia profesionaleko unitateak, dagokionaren arabera.
- Dagokion ikasturtera, ikasleen ezaugarrietara, garapen-mailara eta irakaskuntza-testuinguru zehatzera egokitutako ikaskuntza-helburuak. Teknikoki ondo formulatuta. Unitate didaktikoaren/ ikasteko egoeraren gainerako elementuekin koherenteak izatea. Eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean indarrean dagoen curriculum ofizialaren helburuak eta etapako gaitasunak eskuratzeko egiten duten ekarpena zehazten dituzte. Lorpena ebaluazio-irizpideen, adierazleen eta formulatutako deskribatzaileen bidez egiazta daiteke.

- Proposatutako helburuekin, metodologiarekin, proposatutako irakaskuntza-ikaskuntza jardurekin, ebaluazioprozedura eta -irizpideekin, adierazleekin eta deskribatzaileekin bat datozen jakintzak eta edukiak hautatzea. Irizpide epistemologiko eta funtzionalei erantzuten diete. Testuinguru zehatzera egokituak.
- Ikasgelaren edo beste ikaskuntza-espazio baten metodologia eta antolaketa: ikuspegi didaktikoa edo didaktikoak zehazten dira. Estrategiak, teknikak, metodoak eta abar zehazten dira. Dagokion ikastarora egokitzen da eta egokia da. Gaitasun giltzarriak eta espezifikoak eskuratzeko egiten den ekarpena zehazten da. Hezkuntza-laguntzako behar espezifikoak dituzten ikasleei arreta emateko estrategiak zehazten dira. IKTen ahalmen didaktikoak eta digitalizazioa erabiltzea irakaskuntza-ikaskuntza prozesuetan. Diziplinartekotasuna.

- Unitate didaktikoa/ikasteko egoera garatzeko baliabide didaktiko egokiak.
- Irakaskuntza- eta ikaskuntza-jardueren proposamen errealista eta koherentea, egoera errealera, curriculum ofizialera eta indarrean dauden printzipio metodologikoetara egokituak. Ikaskuntza-egoerak, erronkak, proiektuak, eremuen araberako lana... sartzea. Ikaskuntzak eskuratzea, orokortzea eta transferitzea errazten duen sekuentzia baten arabera antolatutako eta egituratutako jarduerak. Planteatutako helburuekin eta proposatutako metodologiarekin bat datozen jarduerak, gaitasunen garapena sustatzen dutenak, berdinen arteko interakzioa, jarduera autonomia, lan kooperatiboa eta ikasten ikasteko gaitasuna bultzatzen dutenak, aniztasunarekiko arreta kontuan hartzen dutenak, tenporalizazio egokia erakusten dutenak eta baliabide desberdinen erabilera aurreikusten dutenak. Askotarikoak eta motibatzaileak, ondo sekuentziatuak eta ikasgai bakoitzean erabili ohi den material didaktikoaren erabilera kontuan hartzen dutenak. Autonomia eta autoerregulazioa sustatzea.

- Ikasleak ebaluatzeko eta kalifikatzeko jarduerak, baita errekuperatzeko, indartzeko, sakontzeko eta zabaltzeko jarduerak ere. Autoebaluazio-jarduerak. Ebaluazioa binaka.
- Ebaluazio-irizpideak, lorpen-mailaren adierazleak, deskriptore operatiboak eta mailari egokitutako kalifikazio irizpideak, -prozedurak eta -tresnak: lege-egokitzapena eta egokitzapen didaktikoa. Ikasleen aniztasunarekin bat datozenak. Honako hauek hartzen dituzte barnean: exo-ebaluazioa, autoebaluazioa eta koebaluazioa.
- Etengabeko ebaluaziorako eta ikasleen jarraipenerako prozesuak eta tresnak, ebaluazioaren prestakuntza funtzioarekin bat datozenak. Berreskuratze, sakontze, autorregulatzeko eta ikasteko autonomia sustatzeko mekanismoak hartzen dituzte kontuan.
- Ikasleen ikaskuntza, irakaskuntza-praktika bera eta irakatsi eta ikasteko prozesuen eta jardueren eraginkortasuna ebaluatzeko prozeduren, irizpideen eta adierazleen errealismoa, zehaztasuna eta egokitzapen praktikoa.
- Familiek eta eskola-komunitateko beste kide batzuek ikaskuntza-prozesuan parte har dezaten sustatzeko proposamenak.

– Aniztasunarekiko arreta eta hezkidetzak:

- Ikasleen aniztasunari erantzuteko proposamenak zehaztea eta egokitzea, inklusibitatearen printzipioaren arabera. Hezkuntza-laguntzako behar espezifikoak dituzten ikasleei arreta emateko estrategiak zehazten dira, hezkuntza premia bereziak, euskal hezkuntza-sisteman berandu sartzekoak eta gaitasun handiak dituztenak barne. Indartzeko eta sakontzeko planak.

- Hezkidetzako helburuak eta teknikak integratzea eta genero-berdintasuna sustatzea.

– EZTABAIDA EPAIMAHAIAREKIN

- Zehaztasuna, zuzentasuna, zorroztasun zientifikoa, arrazoibidea eta justifikazio akademikoa epaimahaiak egindako galderari/galderei emandako erantzunetan.

- Ahozko aurkezpenen azaldutakoak osatzen edo zabaltzen dituzten argudioak ematen dira.

- Gaitasun pedagogikoa. Irakaskuntzan jarduteko beharrezkoak diren teknikak menderatzea. Arreta berezia jarriko da esparru metodologikoan eta ikasgelako dinamikan.

- Segurtasuna eta heldutasun pedagogikoa adierazten ditu egiten dituen proposamenetan.

- Gogoeta autonomia, nor bere burua egitea eta norberaren ekarpenak erakusten ditu.

- Ezbeharren aurreko erresilientzia, aldaketara egokitzeko gaitasuna (testuinguru, egoera eta eskakizun berriak), ekimena, erabakiak hartzea, enpatia (ikasleekin, familiekin, ikastetxeko langileekin, beste eragile batzuekin), hezkuntza-funtzioaren kontzientzia soziala

- Komunikatzeko gaitasuna: jariotasuna, koherentzia, ordena, zuzentasuna, zehaztasuna, egoerara egokitutako hizkuntza-erregistroa, elokuentzia...